

FUNTSEZKO JARDUERAK

SARARGI-ren funtsezko jarduerak bere jarduna aurrera eramateko beharrezkoak dituenak dira, negozioaren ezagutzarekin edota *know how* delakorekin lotutakoak hain zuzen ere. Hauek, betetzen duten helburuaren arabera sailkatu daitezke:

- **Enpresaren balio proposamena gauzatzeko:** helburu honi erantzuten dizkieten jarduerak produkzioaren eremukoak dira. SARARGI-k jarduera mota ezberdinak eskeiniko ditu, hurrengo zerrendan laburbildu ditzazkegunak:
 1. Egokitzapen zehatzak: komunikazio irisgarritasuna bermatuko duten egokitzapen tekniko zein fisikoak. Adibidez, seinaletikaren egokitzapena, sute-alarmaren egokitzapena edota baliabide teknologikoen egokitzapena.
 2. Zerbitzu zehatzak: irisgarritasun unibertsala bermatzeko beharrezkoak diren formakuntza edota sentsibilizazio tailerretaz ari gara. Zenbaitetan egokitzapen tekniko eta fisikoak aurrera eramateko beharrezko edukiak eta jarrerak barneratzea ahalbidetuko dituztenak.
 3. Plangintza edota programa integralak (PIAU): irisgarritasun unibertsala ezartzeko eskeiniko ditugun plan orokor eta pertsonalizatuak. Institutuzio edota ekimenaren beharra eta aukeraren araberakoa izango dena. Bezzeroaren errealitatea kontutan hartuta komunikatiboki haien espazioa edota jarduna irisgarria bihurtuko duten egokitzapen eta zerbitzuen multzoak osatuko luke plangintza hau.

- **Bezeroak erakartzeko edota harremana mantentzeko:** SARARGI-k ezingo luke bere aktibitatea aurrera eraman bezeroak erakarri gabe, edota hauekiko harremana bermatzeko kanaletaz arduratu gabe. Hori dela eta, jarduera hauek ere funtsezkoak dira. Helburu hau duten jarduerak arazoak konpontzearen eremukoak eta plataforma edo sareko jarduerak dira. Hurrengo sailkapenean laburbilduko ditugu:

1. Bezeroak erakartzeko estrategiak: “Bezeroekiko Harremanak” piezan azaldu dugun bezala, SARARGI-ren garapen fasearen arabera izango da estrategia honen izaera. Hala ere, SARARGI bezala jarduera hau presente eta plangintzatuta izan beharko dugu beti. Adibidez, sektore profesionaleko edota bezeroen formakuntza eta kongreso ezberdinetan gure presentzia bermatzen, weborrialdea eguneratua izaten, edota zerbitzuen lizitazioen berriak izaten.
2. Web-orrialdea eguneratu, elikatu eta hobetu: esan dugun bezala, bezeroekiko lehenestuko dugu harremana zuzena izango da, baina hau bultzatzeko webgunea eskuragarri, txukuna, eguneratua eta eraginkorra izatea ezinbestekoa da. Bertan, bezero berriak erakartzeko kontaktatzeko bideak egoteaz gain, gure zerbitzuen katalogoa egongo da. Web-orrialdearen bitartez egondako arazoak planteatu ahalko dira ere.
3. Bisiten edota bileren kalendarizazioa: bezero berriak erakartzeko, suertatu daitezkeen arazoak konpontzeko edota zerbitzu ezberdinen jarraipena egiteko bisitak, bilerak edota zuzeneko harremanak funtsezkoak dira. SARARGI-ren kideon lana antolatu beharko dugu eta bisita eta bilera hauen kalendarizazioa egin behar guztietara heldu ahal izateko.

- **Diru sarrerak sortzeko:** SARARGI-ren kasuan, diru-iturri nagusia bezeroek egindako ordainketak izanda, eta bezero mota ezberdinak izanik; hau da, eremu publiko zein pribatukoak; hauek sortzeko eta kudeatzeko zenbait jarduera burutu beharko ditugu:
 1. Lizitazio publikoetara aurkeztu: SARARGI-k eman ahal duen zerbitzuetarako instituzio publikoek argitaratzen dituzten lizitazio publikoetara adi egon beharko gara. Honetarako, instituzio publikoek, batez ere Gasteizko Udalak iragartzen dituen lizitazioen boletinaren jarraipen etengabea egin beharko dugu. Behin aurkeztu gaitzkeen lizitazio bat detektatzen dugula, hauetara aurkezteko pausu guztiak egin beharko ditugu eta epeetan sartu beharrezkoak diren dokumentuak eta eskakizunak.
 2. Entite publiko zein pribatuetan komunikazio irisgarria lortzeko egon daitezkeen hutsuneak detektatu eta proposamenak aurkeztu: ezagutzen ditugun zerbitzu publiko zein pribatuetan SARARGI-k konpondu ahalko lituzkeen hutsuneak detektatu eta horiek betetzeko proposamen ezberdinak aurkeztu.
 3. Komunikazio behar konplexuak dituzten pertsonen elkarteekin kontaktua izan: SARARGI-ren eginkizuna komunikazio irisgarria bermatzea den heinean, komunikazio behar konplexuak dituzten kolektibo ezberdinekin kontaktuan egon beharko da haien beharrak zerbitzu ezberdinetan berresteko eta baita ere behar horietan oinarrituta proposamen bateratuak egiteko entitate publiko zein pribatu ezberdinei.
 4. Kontratazioekin, zeregin legakekin eta kontabilitatearekin lotutako jarduerak: hauetako ekintza batzuk kanporatuko baditugu ere, SARARGI-ren garapen fasearen arabera eta baita ere honen gaitasun ekonomikoaren arabera, hauetako jarduera batzuk SARARGI-ko kideok kudeatu beharko ditugu.

Arestian aipatutako funtsezko jarduera guztiak SARARGI-ko kideok gure gain hartuko ditugu, baina SARARGI-ren eginkizun osoa betetzeko kanpoko enpresen esku utziko ditugu beste zenbait jarduera, hauek SARARGI-k egitea ez diolako balio erantsirik emango zerbitzuari. Hori dela eta, hurrengo jarduerak kanpoko enpresen gain utziko ditugu, “Funtsezko Elkarteak” piezan aipatu dugun bezala, harreman ekonomiko egonkorak eratzen saiatuz. Hauek izango dira beste enpresen esku utziko ditugun jarduerak:

1. Egokitzapen zehatzetarako behar ditugun kanpoko ezagutza tekniko profesionalak: zenbaitetan, gure bezeroei eskeinitako zerbitzuetan, SARARGI-ren konpetentzia profesionaletatik kanpo kokatzen diren jakintzak beharrezkoak izango ditugu. Kasu honetan, kanpoko profesionalak kontratatuko ditugu hauek egiteko. Honen adibide zehatzak izan daitezke, sute-alarma egokitzeko elektrizisten lana, zenbait lan egiteko diseinatzaile baten jakintza, edota arkitekto baten aholkua.
2. Weborrialdea egiteko eta garatzeko informatika lanak: weborrialdea egiterakoan baloratu beharko dugu ea SARARGI-ren kidegoaren barruan kalitatezko weborrialdea egiteko eta kudeatzeko ezagutza eta energia dagoen. Hau izan ezean, ekonomikoki baloratu beharko dugu lan hauek aurrera eramateko informatika lanak burutzen dituen enpresa baten zerbitzua kontratatu dezakegun.
3. Kontabilitatea, kontu legalak eta kontratazioak kudeatzeko lanak: SARARGI-ren fase ezberdinetan kontabilitatea, kontu legalak edota kontratazioak kudeatzeko lan aholkularitza baten zerbitzuak kontratatu beharko ditugu. Hau ez badugu egiten, ezjakintasunagatik, SARARGI-ren denbora eta errekurtsio asko xurgatu dezakete jarduera hauek.